

“Emakumeak enpresak sortzeko prozesuetan” jardunaldia

PERTSONAK ERAKUNDEEN ARDATZ BIHURTZEAK GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEN LAGUNDUKO DU ENPRESETAN

“Familiako bizitza eta lana bateratzea ez da soilik genero kontua, lurralde bateko ekoizpen sarearen eraginkortasunean ere eragiten du; hori dela eta, enpresen lehiakortasunerako erronka bat da, bizikidetasuna hobetzeko funtsezkoa da eta jaiotza tasa eta belaunaldien arteko lotura mantentzea errazten du”. Horixe esan zuen atzo José Ramón Guridik, [Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko sailburuak](#), “Emakumeak enpresak sortzeko prozesuetan” jardunaldiaren hasierako ekitaldian. Jardunaldi hori ekainaren 6an egin zen, Donostiako [Koldo Mitxelena](#) kultura zentroan, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu zuen, 2011ko Berdintasunerako Foroaren baitan.



José Ramón Guridik nabarmendu zuen Gipuzkoa Europako gune ekonomikorik aurreratuenen artean dagoela, eta ekonomia sozialak eta kultura parte hartzaileak lurralde honetan duten garrantzia azpimarratu zuen. Halaber, praktika ekonomikoak arreta pertsonetan jartzeko eskatu zuen, enpresen erdian gizonak eta emakumeak baitaude, eta pertsonekin eta horien ezagutzarekin, sormenarekin, ahaleginarekin eta gogoarekin sortu behar baita aurrerapena eta garatu behar baita etorkizuna.

“Prestakuntza programetan gizonak parte hartzen dute bereziki”

José Ramón Guridiren aurkezpenaren ondoren, Juana M^a Astigarraga [Gipuzkoako Foru Aldundiko Lankidetzak, Giza Eskubide eta Berdintasuneko](#) zuzendari nagusiak, “Foru politikak emakumeen eta gizonen berdintasunerako: esparru orokorra eta egindako lana enpresen arloari dagokionez” gaiari buruz hitz egin zuen.

Politika hauek garatu diren esparru orokorra azaldu ondoren, Astigarragak bere Sailak eta [Adegi](#) Gipuzkoako Enpresarien Elkarteak egindako azterlan baten berri eman zuen. Aipatu zuen azterlan horrek hainbat gai garrantzitsu ezagutarazi dituela Gipuzkoako enpresetan emakumeek duten presentziari buruz. Lankidetzak, Giza Eskubide eta Berdintasuneko zuzendari nagusiak azaldu zuenez, azterlan horren arabera “denbora partzialeko lana emakumeek egiten dutela gehienbat, enpleguaren sektorizazio garrantzitsua dagoela oraindik eta enpleguan segregazio bertikal argia dagoela”. Horrez

gainera, hizlariak azaldu zuen "ordainsari politika inoiz ez dela emakume langileen aldekoa, eta prestakuntza moduluak gizonezkoek egiten dituztela bereziki; izan ere, programa horiek laneko ordutegitik kanpo egiten dira, eta gizonezkoak izan ohi dira etxeko zereginetatik libratu ohi direnak".

Bestalde, amatasunak, eta seme-alabak hazteko garaian lanpostuetatik emakumeak falta izateak, emakumeek lan egiturari sustatzeko aukera asko galtzea eragiten du; horrek, berriz, erantzukizun handiko lanpostu nagusiak gizonen eskutik ekartzen du.

Era berean, Juana M^a Astigarragak jakinarazi zuen Gipuzkoako enpresa gehienek bizitza laborala eta profesionala bateratzeko neurriak hartzen dituztela esan arren, galdetutako enpresen % 72k aitortzen dutela ez daukatela berdintasun planik, 250 langile baino gehiagoko enpresatan nahitaezkoak badira ere.

"Emakumeak ez dira hartzen enpresari gisa"

"Ba ote dago berdintasun mugarik gabeko ekintzaitzari?" Galdera horri erantzuten saiatu zen [Farapi](#) antropologia aplikatuko aholkularitzako Begoña Pecharromán bere hitzaldian. Pecharrománen iritziz, genero ikuspuntua aplikatu behar zaie beti egiten diren azterketa guztiei, eta "ez da polarizatu behar, horren ordez funtzionalitatekin lan egin behar da, jarduteko modu berriak irudimenez bilatuz, enpresak sortzean emakumearen zeregina areagotzeko". "Gure ikerketen arabera, egia dena zera da" azaldu zuen Pecharrománek, "emakumeek gutxiago ekiten dutela, beren enpresa ekimenak zerbitzuen sektorean gauzatzen dituztela oro har, eta ez dutela beren burua enpresari gisa hartzen". Hizlariaren ustez, horren arrazoiak "emakumeak familia osaketarantz sozializatzen jarraitzea da", eta gainera, taldeko ikuspuntu batetik "gizonek egiten duten jardura ekintzailea gehiago baloratzen da, emakumeek egiten dutena baino".

Begoña Pecharrománek azaldu zuen, bere iritziz, akats bat dela ezaugarriak eta gaitasunak oro har pertsonen ez aplikatzea, eta gizonen eta emakumeen arteko bereizketak egitea. "Izan ere" adierazi zuen Pecharrománek, "ekintzailea definitzen duten ezaugarriek gizonen izaera dute eta enpresaren munduan arrakasta lortzen duten zenbait emakumek rol horiek hartzen dituzte. Adibidez, grina (ekintzaile izateko funtsezkoa izan daitekeena) ez da emakumeen berezko ezaugarri gisa hartzen; halaber ez dira 'femeninotzat' hartzen gizon ekintzaileari lotutako beste zenbait ezaugarri, hala nola botererako joera, menderatzea, gogortzea, indarkeria eta arriskua".

Farapi enpresako espezialistaren ustez, beren negozioa abian jarri behar duten emakumeek aurkitzen duten beste oztopo bat zera da, oro har, hain garrantzitsuak diren gizarte sareak (lagunak, kontaktuak, lankideak, influentziak) eskasagoak direla haien gizonezko lankideenak baino; izan ere, gehienetan, denbora eta aukera askoz gutxiago izan dute horiek sortzeko eta zabaltzeko.

"Emakumeak gizonak baino hobeto prestatuta daude"

María Pilar Rodríguezek eta María Jesús Pandok, [Deustuko Unibertsitateko](#) Komunikazio Saileko irakasleak, enpresak sortzeko prozesuetan emakumeen eginkizuna ikertzera bideratutako jardunaldian parte hartu zuten. [Hitzaldi bat](#) eskaini zuten gai horren inguruan, eta lan arloan emakumeek komunikabideetan duten irudia aztertu zuten.

Zentzu horretan, María Jesús Pandok azaldu zuen, datuek diotenez, gaur egun emakumeak gehiago direla eta hobeto prestatuta daudela gizonezkoak baino, enplegu dinamika ez direla aldatzen, eta emakumeen lan jardura osasunaren arloan eta jardura soziojuridikoan egiten dela gehienbat; aldiz, erantzukizuneko lanpostu nagusiek edo sektore ekonomiko garrantzitsuetako jarduerak esaterako, hala nola ingeniarietako edo teknologietako, gizonen esku jarraitzen dute oraindik. "Emakumeek ordainsari baxuagoak, hain egonkorak ez diren enpleguak eta sustapen aukera txikiagoak dituzte; horrez gainera, feminotasuna 'emozionaltasunarekin' parekatzen da, eta faktore hori gutxi baloratzen da arlo ekonomikoan eta enpresen arloan".

María Pilar Rodríguezek, berriz, azaldu zuen elementu horiek guztiak oso ondo islatzen direla emakumeek enpresaren arloan duten eginkizunari buruz komunikabideek egiten duten irudian. "Azken urteetan asko hobetu bada ere", irakasle honek zera adierazi zuen, komunikabideetan lehentasuna ematen zaiola oraindik ere "erle erreginaren sindrome" gisa zehazten dena hedatzeari; hain zuzen, horrela deitzen zaie genero kontzientziarik ez duten eta lan arloan estereotipikoki genero maskulinoari lotutako 'balioak' ezartzeaz harro agertzen diren emakumeei".

"Adituen orientazioa sustatu behar da"

Emakumeen ekintzaitza sustatzeko estrategiak bilatzea konstante bat izan da nazioartean, eta hainbat herrialdetan arlo horretan egiten diren ekimen garrantzitsuenak aztertu ditu Jessica Durán **IKEI** enpresako aholkulariak lan batean, "Nazioartean emakumeen ekintzaitza bultzatzeko programen gakoak" aurkitzeko.



Duránek azaldu zuenaren arabera, erreferentziatzko nazioarteko hainbat eredu ikertzetik honako ondorio hauek atera ditu: emakumeen enpresa espirtua sustatzea komeni da zentzu zabalean, ekintzaile izan nahi duten emakumeak bultzatzea komeni baita, baina baita dagoeneko enpresariak diren emakumeak ere; gizarte kontzientziatzea sustatu behar da, enbaxadore sareen bidez adibidez (arloan esperientzia duten emakumeak, jarduera horretan hasi berri diren beste batzuei ezagutzak jakinarazten dietenak); garrantzitsua da emakumeen ekintzaitzari buruzko informazioa hedatzea, IKTen (informazioaren eta komunikazioaren teknologiak) erabilera zentzuduna eginez; prestakuntza jarduerak sustatu behar dira; "mentoring" edo adituen orientazioa (bi eta sei hilabete arteko tutoretzak eta aholkularitzak) sustatzea beharrezkoa da, eta "networking" edo gai bati buruz interesa duten pertsonak elkartzen dituzten jarduerak sortzearen garrantzia baloratu behar da.

Jessica Duránek, gainera, emakumeen ekintzaitza sustatzeko nazioarteko eredu nagusietan politika egokiak egoteak duen garrantzia azpimarratu zuen, emakumeak finantzazioa jasotzeko aukera izateko, enpresen eskualdaketaren alde egiteko eta bateratzea sustatzeko.

"Gaur egungo gizarte ingurunearen konplexutasuna erakundeen barneko konplexutasunean islatzen da"

Isabel Vaquerok, Adegia patronalaren ordezkari gisa, "Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren kudeaketa, enpresaren arloan" izeneko hitzaldia eman zuen. Bere ustez, enpresetan emakumeek duten presentziaren edo ekintzaile gisa emakumeek duten eginkizunaren azterketa ezin da bereizi muturreko aldaketetatik, hain zuzen honako hauek: gizar-tean sortzen ari direnak, familia ereduak ugaritu dituztenak, arau berriak sorrarazi dituztenak (erkidegokoak, estatukoak eta Europakoak), eta teknologia berriek, globalizazioak eta lehiakortasun handiak ekonomian eragindako aldaketa sako-

nekin zerikusi zuzena dutenak. "Gaur egun, enpresak kudeaketan, produktuan eta zerbitzuan desberdinu behar dira" esan zuen Isabel Vaquerok, eta horretarako, "funtsezkoa da pertsonetan arreta jartzea, horiek baitira sormenaren eta berrikuntzaren oinarria".

Horren harira, Adegri patronalaren ordezkariak adierazi zuen enpresek geroz eta premia handiagoarekin ulertzen dutela berdintasuna kudeatzeko beharra. "Produktibitatea areagotzea, laneko giro hobea lortzea, absentismoak gutxitzea eta sormena sustatzea nahi badugu, zenbait joera aldatzen hasi beharra daukagu; hain zuzen, joera horiek duela zenbait hamarkadatik ezarrita daude, eta enpresetan gizonen eta emakumeen berdintasunari onurarik ez ekartzeaz gain, horien funtzionamenduari ere ez die laguntzen". Zentzu horretan, Isabel Vaquerok jardunaldiari dagokionez buruko mapak aldatzeak duen garrantzia azaldu zuen. "Proiektuak lan egiten hasi beharrean gaude, eta proiektu horretan parte hartuko duten pertsonen beren ordutegia eta baliabideak kudeatzeko aukera ematen". Halaber, beharrezkoa da absentismoa eta langileen eskuragarritasun fisikoa ulertzeko dugun modua aldatzea, "gehiegizko presentzialismoa jasaten ari baikara". Isabel Vaqueroren arabera, funtsean zera egin behar da, "gaur egungo gizartearen konplexutasuna erakundeen barneko konplexutasunean islatzen dela ulertzea, eta erakundeek egoera hori kudeatzen ikasi behar dutela barneratzea".

"Emakumeari bere negozioa abian jartzeko fase guztietan lagundu behar zaio"

"Emakumeak enpresak sortzeko prozesuetan" jardunaldiko hitzaldiei amaiera eman zien [Joseba Amondarain](#) Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza saileko Jakintzaren eta Enpresa Jardueraren Sustapen Zerbitzuko buruak, eta bere hitzaldian, [Emekin](#) programaren hastapenak azaldu zituen; hain zuzen, programa hori Gipuzkoako emakumeek enpresak sortzera bideratuta dago. Halaber, azaldu zuen ekimen hori honako hauetan oinarritzen dela: Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak garatutako berdintasun planetan, [GEM](#) (Global Entrepreneurship Monitor) eta [REM](#) (Regional Entrepreneurship Monitor) txostenetan eta [Europako Gizarte Funtzak](#) arlo horretan egindako deialdi batean (% 50 kofinantzatu du "EGFk zure etorkizunean inbertitzen du"-).

Joseba Amondarainek azaldu zuenez, Emekin programak genero ikuspuntua zeukan sortu zenetik bertatik, eta haren helburua emakumeari laguntzea zen enpresa sortzeko, emakumeari finantzaziorako bidea erraztuz eta lagunduz, eta gainera, proiektu bat sustatzeko beharrezkoa den administrazio ibilbide zaila gaindituz". Horrez gain, Amondarainen arabera, "Emekin emakumeei laguntzen ahalegintzen da haien negozioa martxan jartzeko prozesuaren fase guztietan, informazioari, prestakuntza beharrari edo negozioaren bideragarritasun plana garatzeari dagokienez".

Era berean, Josefa Amondarainek esan zuen Emekin programak garrantzi handia ematen diola haren jarduerak hedatzeari eta emakumeek egindako proiektuak sozialki ikusgarri egiteari. "Une honetan, 450 emakume jarri dira programarekin harremanetan, 251 emakumek programa berean parte hartu dute eta guztira, 84 enpresa trebatu dira. Datu positibo gisa, aipatu behar da zenbakiak adierazten dutenaren arabera, Gipuzkoan, gizonen eta emakumeen ekintzaile tasaren aldea murriztu egin dela eta, berez, Europako Gizarte Funtzak berak ulertzen duela Emekin programa jardunbide egokien kasu bat dela, emakumeen jardura ekintzailea sustatzeko".

"Emakumeak enpresak sortzeko prozesuetan" jardunaldia bideo emanaldi batekin amaitu zen; bideo horretan, hainbat pertsonak gai horri buruzko hausnarketa egin zuten eta [mahai inguru bat](#) egin zen enpresak sortu dituzten edo enpresa proiektu bati ekiten ari diren emakumeekin. Topaketan, honako hauek egon ziren: Julia Fernández, [ASPEGI](#) (Emakume profesional eta enpresarien Gipuzkoako Elkarte) elkarteko lehendakaria; Visi Anguera, [Promobasque SL](#) enpresakoa (laguntzaileak eta sustatzaileak); Marisol Goicoechea, [Tecnologías de la Información SS SAL](#) enpresakoa; María Ríos, [Papperino Il Gelatto](#) enpresakoa (artisans izozkitezia), eta Jaione Izaguirre, [Egokisport, SL](#) enpresakoa (egokitutako kirola).